

KORRIDORE ETATIK

Xabier Isasi

AGENDA



Udako Euskal Unibertsitateko zuzendaria

Euskal Unibertsitatea

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV) sortu zenean UEUra bildutakoek argi utzi zuten unibertsitate hura ez zela Euskal Unibertsitatea. Euskal Unibertsitatearen izen-dapenak edukiz beteriko ideia biltzen du bere baitan. Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) hogeita hamar urte luzetan gorde eta garatu duen izendapena da, hain zuzen ere. Euskal Unibertsitatea gaur egun, berriz, bi adiera diferentetan uler daiteke; ohikoa, Euskal Herriak, edo zehatzago Euskararen Hizkuntza Komunitateak, behar duen unibertsitatea, unibertsitate nazionala nahi bada. Eta adiera berrian, berriz, azken urte hauetan zenbait unibertsitatetan euskaraz sortu izan diren ekimenen multzoa adierazi nahi da. Batzuentzat, itxuraz, Euskal Unibertsitatearen beharra alegia. Horrela, Euskal Unibertsitatea euskaldunen eta euskal-dunentzako goi mailako irakaskuntzako erakunde gisa ulertzen dugu. Oso diskusio zaharra da.

tatea Euskarazko Unibertsitatearen baliokidea da. Oker daude. Hainbat unibertsitatetan euskaraz diharduten ikasle, irakasle eta langileek, euskaraz jardunagatik, ez dute osotzen eite antolaturik, ez dira unibertsitatea alegia. Unibertsitario horiek zein bere unibertsitateko araubidekoak dira, bakoitzak bere unibertsitatea badu eta unibertsitate bakoitzak arautzen die hizkuntza politika, antolakuntza akademikoa eta estamentu bakoitzaren jarduerarako irizpideak.

Hainbat unibertsitatetako unibertsitario euskaldun (euskaltzale) biltzen dituen ez da Euskarazko Unibertsitatea alegiazko erakundea. Zerbaitek biltzen baldin baditu, hain zuzen ere, erakundearen beharra antzematea da, Euskal Unibertsitatearen beharra alegia. Horrela, Euskal Unibertsitatea euskaldunen eta euskal-dunentzako goi mailako irakaskuntzako erakunde gisa ulertzen dugu. Oso diskusio zaharra da.

tatearen beharra alegia. Horrela, Euskal Unibertsitatea euskaldunen eta euskal-dunentzako goi mailako irakaskuntzako erakunde gisa ulertzen dugu. Oso diskusio zaharra da.

Adibidez, EUSKALDUNON EGUNKARIA sortu aurretik «euskal prentsaz» eztabaidatu ohi zen. Gerora, euskaldunon periodikoa agertzeak eztabaida luze eta zakar bati puntu eta kito jarri zion: euskal prentsa, oro har, Euskal Herrian argitaratzen den prentsa guztia izan daiteke, baina euskaldunon egunkaria momentuz bakarra da. Unibertsitatean, tamalez, atzekoz aurreko ezbaia daukagu oraindik; euskara, kasurik onenean, kategoria izateraino iritsi da zenbait unibertsitatetan. Ez da nahikoa. Euskara normalduko bada, euskaldunok hezkuntza eta ikerkuntzarako goi mailako erakundea behar izango dugu: Euskal Unibertsitatea. Hara goaz.

◆◆◆
Ikuskizuna

Euskal koreografoen dantzak EHU-ren Leioako campusean. ■ Euskal koreografoek erakustaldia egingo dute heldu den asteazkenean EHU-ren Leioako campusean. *Mania, Mejor solo que mal acompañado* eta *Bostak S2* obrak emango dituzte. 12:00etan hasiko dute dantzaldia, eskolako Areto Nagusian.

◆◆◆
Zinema

'The third man' filma NUPen. ■ NUPEko Kultur Ekintzen Bulegoak antolatuta, Carol Reed-en *The third man* (Hirugarren gizona) filma eman-go dute gaur, 22:30ean, Iruñeko Saide Olite zinema aretoetan.

◆◆◆
Jardunaldiak

'Zinema, zuzenbidea eta errealtatea' jardunaldiak NUPen. ■ *Zinema, zuzenbidea eta errealtatea* jardunaldiak egingo dituzte gaur NUPen. Kartzelei buruz mintzatuko dira I. jardunaldiotan. 18:00etan *Das experiment* (Esperimentua) filma eman-go dute, eta gero hitzaldia egingo dute Soledad Barber eta Antonia Azanzak adituek.

◆◆◆
Antzerkia

'El clásico binomio' ikuskizuna EHUren Leioako campusean. ■ *El clásico binomio* antzerki saioa eman-go dute gaur EHUren Leioako campusean. Eskolako Areto Nagusian egingo dute ikuskizun umoretsua, 12:00etatik aitzina.

◆◆◆
Zinema

'El bola' euskaraz Bilboko Casilla kiroldegian. ■ EHUk antolatuta, Acherio Mañasen *El bola* filma euskaraz emango dute heldu den asteartean, Bilboko Casilla kiroldegian. 19:00etan hasiko dute emanaldia. Sarrera doakoa izango da.

◆◆◆
Erakusketa

'Ahaztuak, txiroak eta botikak lortzeko aukerarik gabe' erakusketa EHUren Gasteizko campusean ■ Mugarik Gabeko Medikuek Afrika eta Asiako hainbat herrialdetan egindako argazkiak paratu dituzte EHUren Gasteizko campuseko Elurreta eraikinean. Bertoko biztanleen egoera larriaz mintzo dira irudiak: jatekorik ia ez daukate, botikak ez zaizkie heltzen... eta, gainera, herrialde garatuetako jendeak ia ahaztu egin ditu. Argazki erakusketa hila-ren 30a arte egongo da zabalik.

BEKAK

Bekak. Informazio gehiago jasotzeko: www.euskadi.net; www.mec.es/becas/becas.html; www.boe.es/noticias/becas.html; www.infocurso.com; www.becas.com; www.ahoraque.com; www.wanadoo.campus.com; www.infoempleo.com; www.igsap.map.es/does

EUSKAL HERRIA

Euskarazko literatur sormenerako, Joseba Jaka bekak emango dituzte

Deitzailea: Euskaingintza Elkarlanean.

Baldintzak: aurreko urteetan horrelako bekarik jaso ez izana galdatu zaie eskatzaileei. Euskarazko literatur lanak sortzeko bekak emango dira.

Zenbatekoa: 7.000 euro beka bakoitzeko.

Epea: abenduaren 19an agortuko da epea.

Informazioa: Euskaingintza Elkarlanean Fundazioa. Tfnoa: 943-219427. E-maila: eef@jalgi.com

Baztanen, euskarazko ahozko tradizioa ikertzeko, Mariano Izeta beka emango dute

Deitzailea: Baztango Udala.

Baldintzak: eskatzaileek erdi edo goi mailako unibertsitate tituludunak izan beharko dute. Bakarka edo taldean egin daiteke Baztango euskarazko ahozko tradizioa ezagutzeko ikerketa. Taldean aurkeztuz gero, taldekide bat lanaren arduraduna izanen da. EGA agiria edo baliokidea eduki beharko dute eskatzaileek.

Zenbatekoa: 7.813,16 euro.

Epea: etzi agortuko da eskaera epea.

Informazioa: Baztango Udaleko Euskara Zerbitzua. Tfnoa 948-58 00 06 / 948- 58 10 07, Posta elektronikoa: euskara@baztan.animsa.es

Bortzirietan kafe-antzerki emanaldiak prestatzeko bekak emango dituzte

Deitzailea: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Berako eta Etxalarko udalak.

Baldintzak: kafe-antzerkiak prestatzeko bekak emango dituzte. Beka honetan, euskaraz sortutako proiektuak lagunduko dira; inon argitaratuak

edo plazaratuak izan direnak eta bertze bekarik edo saririk jaso dutenak ez dira onartuko. Bertze lanen baten itzulpenak edota moldaketak ez dira jatorrizkotzat joko. Izan ere, euskal sortzaileei bultzada ematea eta gure herrietan formatu txiki-ko lanak taularatzea dira bekaren xedeak.

Zenbatekoa: 900 euroko bi beka dira.

Epea: 2003ko urtarrilaren 31n agortuko da. Epaimahaiak, egoki baderitzo, beka bat edo biak ez ematea erabaki dezake.

Informazioa: Bortzirietako Euskara Mankomunitatean jaso daiteke informazio gehiago. Tfnoa: 948-634125 E-maila: bortziriak@euskalnet.net

ESPAINIA

Garagardo, osasun eta elikadurari buruzko bekak emango dituzte

Deitzailea: Hezkuntza Ministerioa.

Baldintzak: goi mailako unibertsitate titulua izatea eta beren lizentziaturako ikasketak 1998an edo geroago bukatu izana nahitaezkoa da.

Zenbatekoa: 10.420 euro, orotara.

Epea: gaur agortuko da eskaera epea.

Informazioa: Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioa. Tfnoa: 91-5505400.

Gizarte zientzietako ikertzaile modura trebatzeko bekak banatuko dituzte

Deitzailea: Ikerketa Soziologikoetako Zentroa.

Baldintzak: Soziologiako edo Politika Zientzietako lizentziadun izatea eta ikasketak 1998ko ekainean edo ondoren amaitu izana galdatuko zaie eskatzaileei. Soziologia eta Politika Zientzietako ikertzaile gazteak prestatzeko 9 beka eman-go dituzte. Lizentziadun gazteak gizarte ikerketa aplikatuan erabiltzen diren metodo eta teknikekin lan egiteko prestatzea da beken helburua.

Zenbatekoa: 8.800 euro beka bakoitzeko.

Epea: gaur agortuko da eskaera epea.

Informazioa: Ikerketa Soziologikoetako Zentroa. Tfnoa: 91 5807600. Helbide elektronikoa: cis@cis.es. Webgunea: <http://www.boe.es>

EUROPA

Alemanian hizkuntza ikasketak egiteko bekak emango dituzte

Deitzailea: Truke Akademikoko Zerbitzu Alemaniarrak (DAAD).

Baldintzak: Gutxienez ikasketetako bigarren kurtsoa gainditu badute eta alemana badakite eskatu ahal izango dituzte bekak. Ezingo dute bekarik eskatu Alemanian jada ikasturte bat edo sei hileko bat igaro duten ikasleek. Alemaniako unibertsitateetan udako ikastaroak egiteko bekak banatuko dituzte. Beka hauen helburua ikasleek Alemaniari buruz dakitenean sakontzea da, eta, noski, alemanera hitz egiten trebatzea.

Zenbatekoa: eskatzaileen baliabide ekonomikoaren arabera diru laguntzak emango dituzte.

Iraupena: hiru hilabeteko bekak izango dira.

Epea: etzi bukatuko da eskaera epea.

Informazioa: Alemaniako Errepublikak Federa-leko enbaxada. Tfnoa: 91 3102104

MEZUAK

DONOSTIAN, Egia auzoan, pisua osatzeko, ikasle bi behar dituzte. Hilero 175 euro. Tfnoa: 676656789.

BILBON, Casilla ondoko egoitza batean gela bat alokatzen dute. Tfnoa: 94 4277051 edo 605 763169.

GASTEIZEN, pisu bila dabilta hiru mutil. Etxea erdialdetik albait gertuen egotea gura lukete. Tfnoak: Mikel (94 4790254) eta Jon (657765567). Ahal bada, arratsalde edo gauez deitu.

BIDALI ZURE GUTUNAK ETA MEZUAK

uni@egunkaria.com • EGUNKARIA Egia Jenerala, 3-behea 48010 Bilbo